Jaurtze-Batzordearen 1984.eko Abuztuaren 10eko ERABAKIA, Bilboko Udal T. Gorenak suztatu eta bideratu, Elejabarriko harrobi zaharra zen "la Charca"-ri dagokion Bilboko eta bere Eskualdeko Hiri-Antolaketarako Guztizko Egitamuaren Aldakuntzazko zehaztapidetza erabakiz. (Hutsen Zuzenketa). 118

Lurralde-Antolaketa, Garraio eta Turismo-Sailaren 1984.eko Azaroaren 28ko ERABAKIA, Artzeniegako Udalerrian eta Pedro Maria Urrutia Alava Jaunak suztatuta, familia-etxebizitza baterako eta merkataritzategirako izango den eraikintza-egitasmoari buruz. 119

Lurralde-Antolaketa, Garraio eta Turismo-Sailaren 1984.eko Abenduaren 18ko ERABAKIA, Gernika-Lumoko Udal-mugarteko Kanpantxu auzoan familia bakar batentzako etzebizitza bat eraikitzeko baimenari buruzko zehaztapidetza ebatziz. 120

ACUERDO de 10 de Agosto de 1984, del Consejo de Gobierno, por el que se resuelve el expediente de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Bilbao y su Comarca en La Charca, antigua cantera de Flejabarri, promovido y tramitado por el Excmo. Ayuntamiento de Bilbao (Corrección de Errores). 118

RESOLUCION de 28 de Noviembre de 1984, del Departamento de Política Territorial, Transportes y Turismo, en relación con el proyecto de construcción de un edificio destinado a vivienda familiar y local comercial en el municipio de Arceniega, promovido por D. Pedro Mª Urrutia Alava. 119

RESOLUCION de 18 de Diciembre de 1984 del Departamento de Política Territorial, Transportes y Turismo, por la que se decide el expediente relativo a la autorización para la construcción de una vivienda unifamiliar en el barrio de Kampantxu del municipio de Gernika-Lumo. 120

# Iragarpenak
# Anuncios

INDUSTRIA ETA MERKATARITZA-SAILA
*(Arabako Lurralde-Ordezkaritza)*

Burgelu eta Gasteizeko udal mugartean, aipatzen diren elektrabideak jartzeko egitasmoaren HERRI-ARGIPIDEKETA. 120

DURANGOKO UDALA

Eskola eta kiroletako aldea zabalagotzeko, lurren jabego-kentzeari buruzko MANU-AGIRIA. 121

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA
*(Delegación Territorial de Alava)*

INFORMACION PUBLICA del proyecto de instalación de líneas eléctricas que se citan, en el término municipal de Elburgo y Vitoria. 120

AYUNTAMIENTO DE DURANGO

EDICTO relativo a la expropiación de terrenos para ampliación de zona escolar y deportiva. 121

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**EKONOMIA ETA HERRIOGASUN-SAILA**

**65**

Abenduaren 27ko 381/1984 DEKRETOA, Ertzaintza-alorrean Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen 1984.-erako Diruegitamuango eskuarte-izendapenen Eraldaketaz.

Euskadiko Autonomia-Elkartearen 1984.erako Guztizko Diruegitamuei buruz, Abenduaren 20ko 30/1983 Legearen 12garren Ataleko 3garren zenbakiko a) hizkian agindutakoaren arauera, Ertzaintza-alorrean Autonomia-Elkartearen agintepideak (bai Gaikuntza-Aldian dauden ertzainei dagozkienak baita zerbitzuan daudenei dagozkienak ere) ordaintzeko izendatutak diruizendapen aldakortzat, hartuko dira. Aurreko zatiak aipatzen dituen diruizendapenak, hots, aldakortzat zermugatutakoak, Ertzainari dirubideak egiterari buruz Kupoarekiko Bitariko Batzordearen Erabakietan ezarritakoaren arauera eran-

**DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y HACIENDA**

**65**

DECRETO 381/1984 de 27 de Diciembre, sobre variación de créditos en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1984, en materia de Policía.

De conformidad con lo dispuesto en la letra a) del número 3 del artículo 12 de la Ley 30/1983, de 20 de Diciembre, de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1984, tendrán el carácter de créditos variables los destinados a financiar las competencias de la Comunidad Autónoma en materia de Policía, tanto se refieran a Policía en Formación como a Policía en Servicio. Los créditos a que se refiere el apartado anterior, calificados como variables, podrán ser incorporados o ampliados y anulados o reducidos en función de lo establecido en los Acuerdos de la Comisión Mixta de

tsiak edo haundiagotuak eta indargabetuak edo murriztuak izan daitezke. Diruizendapenen aldaketa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua izango den Jaurlaritzaren Dekreto bidez egingo da.

Kupoarekiko Bitariko Batzordeak, 1982.eko Irailaren 29ko eta Azaroaren 10eko bilkuretan eta Abenduaren 29ko 3531/1981 Errege-Dekretoan agindutakoa betez, ihardunaren xahupen-neurriaren eta azpiegiturarako eta antolapiderako eskuarteen zermugapena egin zuen.

Segurantza-Batzordearen erabakiz, Ertzaintzaren Ikastegian Gaikuntza-aldian dauden ikasleen zenbatekoa 1984.erako ezarri ondoren eta dagozkien ikasle-talde horien ikastaroak amaitu ondoren, zerbitzuan dagoen ertzaintzaren hasierako diruegitamu-izandepenaren aldaketa egingo da, diruegitamu-atal hori dela eta Euskal Herriko Autonomiadun-Elkarteak zorpidetzat bereganatutako zenbatekoari egokitzeko xedez; guzti hori, Ekonomia eta Herriogasun eta Herrizaingo-Sailek, batera, horri buruz ateratako txostenean oinarrituz.

Hori dela eta, Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuak lehen esandako Erizpen hori oinarri duela egindako saloz, eta Jaurlaritzak 1984.eko Abenduaren 27an egindako Osoko Bilkuran aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo Atala.*– Autonomia-Elkarteko 1982.eko Diruegitamuango Diru-Eskuarteen Eraldaketa.

09 Sailean, Herrizaingoan, 08 Zerbitzuan eta "Zerbitzuan dagoen Ertzaintza"-n sartutako diruizendapenen aldaketa onartzen da, xahupen-egoera berrehun eta berrogeita hamazortzi miloi zazpirehun eta lau mila zazpirehun eta larogeita bat (258.704.781) pesetatan gehituz.

*Bigarren Atala.*– Diru-eskuarteak eraldatzeari darizkion ondorioak.

Ekonomia eta Herriogasun-Sailak honako hau egingo du:

a) Aurreko Atalean aipatzen diren aldaketak Euskal Herriko Autonomiadun Elkartearen 1984.erako Diruegitamuan sartu, dagozkien lege-ondorioekin eta bereziki, zenbatzeketa, egiteratze eta kontu-garbiketa zuzenekoak.

b) Foru-Diputazioek Erresumari 1984.eko Behin-behingo Kupoa ordaintzeko Euskal Herriko Herriogasun-Nagusiari egin beharreko diru-ekarketetatik berrehun eta berrogeita hamazortzi miloi zazpirehun eta lau mila zazpirehun larogeita bat (258.704.781) peseta kendu; hori, Abenduaren 20ko 30/1983 Legearen 33garren Atalean jasotzen denez, 1984.erako Foru-Diputazioek Autonomiadun Elkartearen Diruegitamuei eskuratutako diru-ekarketen eta Autonomiadun Elkarteak Ertzaintza-alorrean bereganatutako agintepidearen aldatutako neurketaren (1984.eko Behin-behingo kupoaren kontu-garbiketetan adierazitakoa) arteko aldearen ondoriozkoa delarik.

| | |
|---|---|
| Foru-Diputazioen haserako ekarketak | 6.561.856.172 |
| 1984.eko Kupoan, Ertzainarekiko aldatutako neurketa | 6.820.560.953 |
| Ertzaintzaren diruizendapenaren aldaketa | 258.704.781 |

Cupo sobre financiación de la Policía Autónoma. La variación de créditos se efectuará mediante el correspondiente Decreto del Gobierno que deberá ser publicado en el Boletín Oficial del País Vasco.

La Comisión Mixta de Cupo, en sus reuniones de 29 de Septiembre y 10 de Noviembre de 1982 y, en cumplimiento de lo dispuesto en el Real Decreto 3531/1981, de 29 de Diciembre, procedió a la determinación del módulo de gastos de funcionamiento, así como a las dotaciones para infraestructura y equipamiento.

Establecido el número de alumnos en Formación en la Academia de la Policía Autónoma para 1984, por acuerdo de Junta de Seguridad, y su pase a Policías en Servicio, una vez finalizados los cursos correspondientes de dichas promociones de alumnos, procede, en consecuencia, realizar la variación de la dotación presupuestaria inicial de la Policía en Servicio, al objeto de adecuarla a la cantidad que por dicho concepto se entiende como carga asumida por la Comunidad Autónoma del País Vasco, todo ello en base al informe emitido al respecto conjuntamente por los Departamentos de Economía y Hacienda y de Interior.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Economía y Hacienda sobre el informe antes aludido y previa deliberación del Pleno de Gobierno en su reunión del día 27 de Diciembre de 1984.

DISPONGO:

*Artículo primero.*– Variación de créditos en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma.

Se aprueba la variación de créditos contenidos en el Departamento 09, Interior, Servicio 08, "Policía en Servicio" mediante el aumento del estado de gastos en un importe de doscientas cincuenta y ocho millones setecientas cuatro mil setecientas ochenta y una pesetas (258.704.781).

*Artículo segundo.*– Consecuencias derivadas de la variación de Créditos.

Por el Departamento de Economía y Hacienda se procederá:

a) A la integración de las variaciones a que se refiere el artículo anterior en el Presupuesto de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1984, a los efectos jurídicos procedentes y, en particular a los de su correcta contabilización, ejecución y posterior liquidación.

b) A descontar de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la Hacienda General del País Vasco para el pago del Cupo Provisional de 1984 al Estado, el importe de doscientos cincuenta y ocho millones setecientas cuatro mil setecientas ochenta y una pesetas (258.704.781 ptas.), derivado de la diferencia entre las aportaciones de las Diputaciones Forales a los Presupuestos de la Comunidad Autónoma para 1984, según se recoge en el artículo 33, de la Ley 30/1983, de 20 de Diciembre, y la valoración modificada de la competencia asumida por la Comunidad Autónoma en materia de Policía expresada en las liquidaciones del Cupo Provisional 1984.

| | |
|---|---|
| Aportaciones iniciales de las Diputaciones Forales | 6.561.856.172 |
| Valoración modificada Policía en el Cupo de 1984 | 6.820.560.953 |
| Variación del Crédito Policía | 258.704.781 |

*Hirugarren Atala.*– Indarrean jartzea.

Dekreto hau, bertan aipatu den dirubidea benetan egin dadin egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1984.eko Abenduak 27.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Ekonomia eta Herriogasun-Sailburua,
JOAQUIN OTXOA SARATXAGA.

*Artículo tercero.*– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de adquirir efectividad la financiación a que el mismo se refiere.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de Diciembre de 1984.

El Lehendakari,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Economía y Hacienda,
JOAQUIN OCHOA SARACHAGA.

**ERTZAINTZARAKO DIRUEGITAMUEN ERALDAKETA**

09 SAILA: HERRIZAINGO
08 ZERBITZUA: ZERBITZUAN DAGOEN ERTZAINTZA

| DIRUEGITAMU-ATALAK | PESETAK |
|---|---|
| 234 | 1.000.000 |
| 241 | 2.000.000 |
| 254 | 5.000.000 |
| 255 | 3.000.000 |
| 261 | 11.000.000 |
| 621 | 78.000.000 |
| 631 | 98.000.000 |
| 632 | 60.704.781 |
| GASTUAK GUZTIRA | 258.704.781 |

**VARIACION PRESUPUESTOS POLICIA**

DEPARTAMENTO 09: INTERIOR
SERVICIO 08: POLICIA EN SERVICIO

| CONCEPTO PRESUPUESTARIO | PESETAS |
|---|---|
| 234 | 1.000.000 |
| 241 | 2.000.000 |
| 254 | 5.000.000 |
| 255 | 3.000.000 |
| 261 | 11.000.000 |
| 621 | 78.000.000 |
| 631 | 98.000.000 |
| 632 | 60.704.781 |
| TOTAL GASTOS | 258.704.781 |

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

**LEHENDAKARITZA ETA ZUZENTZA-SAILA**

**66**

Lehendakaritza eta Zuzentza-Sailaren 1985.eko Urtarrilaren 10eko AGINDUA, Abenduaren 10eko E.H.A.Aldizkariko 209. alean argitaratutako 1984.eko Abenduaren 4ko Aginduan huts egin denez ohartuta, horren zuzenketa eginez.

Epaile eta Herri-Salatzailetzarako Lehiaketak gertatzeko, María Cristina Rodríguez Cuesta Andrea, ikasketa-sari baten eskubidedun zela egiaztatu ondoren; eta Epailaritza-Eskolan sartzeko saioak gainditu ez baditu ere, Zuzentza-Arduralaritzako Idazkari-Sailean sartzezkoetarako saioetan onartua izan denez, era berean, aipatutako dirulaguntza hartzeko zioak indarra galtzen du, Lehendakaritza eta Zuzentza-Sailaren Abenduaren 4ko Aginduko 1. Atala honako era honetan gelditzen bait da:

*1. Atala.*– Bat. Zuzentza-Eskolan sartzeko saioak gainditu dituztenez, honako hartzekodun hauek ikasketa-saririk gabe uztea:

– ARANA AZPITARTE, Fatima.
– BOLADO ZARRAGA, Nekane.
– ITURRI GARATE, Juan Carlos.
– SUAREZ DE ODRIOZOLA, Iñigo.

**DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA Y JUSTICIA**

**66**

ORDEN del Departamento de Presidencia y Justicia de 10 de Enero de 1985, por la que se corrige error advertido en la Orden de 4 de Diciembre de 1984, publicada en el B.O.P.V. nº 209 de 10 de Diciembre.

Habiéndose comprobado que Mª Cristina RODRIGUEZ CUESTA, beneficiaria de una beca para la preparación de Oposiciones a Jueces y Fiscales, si bien no ha superado las pruebas de ingreso a la Escuela Judicial, ha aprobado el ingreso en el Cuerpo de Secretarios de la Administración de Justicia, decae, igualmente, el fundamento a la percepción de la referida ayuda económica, por cuanto que el artículo 1º de la Orden del Departamento de Presidencia y Justicia de 4 de Diciembre quedará redactado como sigue:

*Artículo 1.*– Uno. Dar por finalizada la beca por haber superado las pruebas de ingreso a la Escuela Judicial, a los siguientes beneficiarios:

– ARANA AZPITARTE, Fátima.
– BOLADO ZARRAGA, Nekane.
– ITURRI GARATE, Juan Carlos.
– SUAREZ DE ODRIOZOLA, Iñigo.